


Duela 9.000 urteko hirikumeak



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Anatolia, duela 9.100 urte. Nekazaritzaren asmakuntzak ekarri zituen aldaketak baliatuta, biztanle askoko nukleo bat sortu zen penintsularen hegoaldean; bestela esanda, hiri bat jaio zen: Çatal Hüyük. Hiria 1.150 urte inguru egon zen bizirik eta 13 hektarea zabal eta 25 metro sakon den aztarnategi aberatsa utzi zigun. Arkeologoek 25 urte baino gehiago eman dituzte aztarnategia ikertzen, eta, 2019an, Clark Spencer Larsen bioantropologo estatubatuarrek mende laurdenean bildutako datuak erabili zituen populazioaren ezaugarriak aztertzeko; emaitzak *Proceedings of the National Academy of Sciences* aldizkarian daude argitaratuta.

725 gizakiren nahiz animalia eta landareen arrastoei erreparatuta, lehen hirikume haien dieta jakin ahal izan dute: zerealak kontsumitzen zituzten nagusi, eta ardietatik lortzen zituzten proteina gutxi batzuk ere bai. Nekazaritzak elikagaiak pilatu eta gordetzeko aukera ekarri zuen, baina baita eskasia garaia ere. Gainera, etengabe hazten ari zen biztanle kopuruari jaten emateko ahalagin geroz eta handiagoa egin behar zuten; hirian lan gehiago egin behar zen. Eta elikadura aldaketak beste arazo bat ere ekarri zuen: txantxarrak. Ordurarteko gizaki nomadek ez zuten kariesik izaten, baina zerealetan aberatsa den dietak gaixotasun horren arriskua areagotzen du: Çatal Hüyükeko biztanleen



2DF

%10-13 inguruk hortz-haginak zulatuta zeuzkan.

Oro har, jendea pilatzeak eta higieni faltak infekzioak ugaritzea eragin zuen. Populazio hazkundeari tokia egiteko etxeak elkarrengandik geroz eta gertuago eraikitzen zituzten, ukuiluak eta putzu beltzak tartean zirela. Eraikinak buztinez estaltzen zituzten eta estaldura horietan animalia nahiz giza gorotzen arrastoak aurkitu dituzte.

Aztarnategiko 93 garezur aztertuta, 25etan haustura orbainduak topatu zituzten, eta erdiek objektu sendoei


eragindako haustura bat baino gehiago zuten. Hiriko bizimoduak indarkeria hauspotzen zuen, nonbait. Gainera, genero indarkeriaz hitz egitea ez dirudi guztiz zentzugabea, eraso egindako garezur gehienak emakumeenak baitira.

Azken finean, gaur egungo hirietan bezala, orain dela 9.000 urteko hirietan ere estresa, indarkeria, pilaketa eta gaixotasunak jasan behar izaten zituzten edo, Larsenek dioen bezala, "jende asko eremu txiki batean eta luzaroan pilatzen duzunean gertatzen dena probatzen hasi ziren". ●

Apaingarria eta hilgarria

Ezkerreko argazkian, jadezko koilara olmeka bat ageri da, ebakiduretan oraindik zinabrio arrasto gorrixkak dituena. Zinabrioaren pigmentua balio handikoa eta sakratua zen maientzat eta objektuak nahiz hormak apaintzeko erabiltzen zuten. Baina zinabrioak %85ean merkurioz osatutako minerala da eta, beraz, oso toxikoa. Gaur egun, aztarna-

tegietako geruza batzuetan merkurio maila arriskutsuak topatu dituzte arkeologoek eta, *Frontiers of Environmental Science* aldizkarian jakinarazi dutenez, ziur daude maien osasunean eragina izan zuela horrek. Baina ikusteke dago Aro Klasikoaren amaierako aldaketa soziokulturetan faktore nagusietako bat izan zen ala ez. ●



BROOKLYN MUSEUM